

MARKEL EN AMETSAK

Bazen behin Markel izeneko 12 urtetako mutil bat Bergaran bizi zena. Mutil alaia, dibertigarria eta jatorra zen.

Mutil gaztea zen eta beti zegoen jarrera positiboarekin, arazo guztietarako beti konponbide bat zuen! Ezagutzen zuten guztiek asko maite zuten, beti zuelako hitz polit bat edo txiste bat prest, irrifarre bat ateratzeko. Beti besteengan pentsatzen duen horietako mutil bat zen. Markel bere familiarekin bizi zen: Lili Markelen arreba zen, oso bihurria eta beti alde batetik bestera jolasean zebilena, Gorka markelen aita, Markelen bezala beti zuena txiste bat kontatzeko, eta azkenik Markelen ama, Izazkun, herrian emakume berritsu eta alai bezela ezagutzen zutena. Hau bezalako familiarik ez zegoen!

Markelek amets bat zuen baina zaila betetzeko. Aitak egunero telebista piztu eta albisteak ipintzen zituen. Askotan Palestinako gerraren irudiak agertzen ziren, oso tristeak: jendea lurretik botata, umeak gosez hiltzen... Markel ezin zen geldirik gelditu, bere buruari bueltak eta

bueltak ematen egoten zen egun guztietan telebistaren aurrean. Hurrengo goizean, herriko plazan kutxa handi bat jartzea pentsatu zuen. Ez zuen dirua eskatzen, marrazkiak, jostailuak, mezu politak, Markelen estiloko txisteak... hango umeak poztu eta barre egiteko. Handik gutxira, kutxa gainezka zegoen. Markelek asko eskertu zion herriko jendeari.

- Aizu Markel, hori ideia bikaina Palestinako umeendako kutxarena - esaten zion okindegiko Bixentek
- Asmatu duzu nola Palestinako haurrei tristurak gutxitu! - oihu egin zion hirugarren solairuko bizilagunak

Palestinako umei bidali zizkioten marrazkiak, jostailuak, mezu politak, txisteak... Palestinako umeak asko eskertu zioten Markeli eta herriari. Hortik aurrera herriko jendeak egunero Markel ikusterakoan besarkada potolo bat ematen diote eta berriz Palestinako umeek hilabetero Markeli eskutitz bat idazten diete eskertzeko. Markelen gurasoak eta arreba Lili ere harro daude Markelen ideia bikainagatik.

Markelen ametsa azkenean bete da! Ala bazan edo ez bazan
Palestinako kaleetan poza eta algarak!!!